



## KARMEN JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2018

### OINARRIAK:

- Lehiaketa honetan nahi duenak parte har dezake, taldean zein bakarka.
- Egile bakoitzak gehienez 3 kartel aurkez ditzake. Egile batek kartel bat baino gehiago aurkezten baditu, kartel bakoitzak bere goitizena izan beharko du.
- Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.
- Kartelean pertsonak agertzen badira, genero ikuspegia errespetatu beharko da.
- Kartelean agertu beharreko testua: **KARMEN JAIK 2018. Markina-Xemein**

### Lanen formatua:

- Teknika: librea, edozein teknika onartuko da.
- Neurria: A3 (29zm x 42zm). Diseinu bertikala.
- Formatua: Euskarri gogorra edo papera / Digitala (JPG, Photoshop programarekin bateragarria).

### Lanak non eta nola aurkeztu:

- Non: Markina-Xemeingo Udaletxean. Goikoportala 3, 48270 Markina-Xemein (Jendurreko ordutegia: astelehenetik barikura 9:00 – 13:30). Uhagon kulturguneko bulegoan (goizez: 10:00 - 13:30; arratsaldez: martitzen eta eguaztenak, 15:30 – 19:00).
- Lanak egilearen izenik gabe aurkeztuko dira.
- Kartelaren atzeko aldean goitizen bat idatzi beharko da. Kartelarekin batera gutun-azal bat aurkeztuko da. Gutun-azalaren kanpoaldean “Karmen jaiak 2018 kartel lehiaketa” eta kartelaren goitizen bera idatziko da. Gutun-azalaren barruan, egilearen datuak zehaztu beharko dira: izen-abizenak, helbide osoa eta telefonoa.
- Lanak euskarri digitalean aurkezteko: Lana pendrive edo USB batean aurkeztu beharko da. Gutun-azal handi batean, kanpoaldean “Karmen jaiak 2018 kartel lehiaketa” eta goitizena idatzita. Gutun-azal honen barruan lana gordetzen duen USB-a sartu eta beste sobre txiki baten egilearen datu hauek jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Artxibo digitalaren izena goitizena izango da.

### Epea:

Maiatzak 25, barikua, eguerdiko 13:30ak arte.

### Epaimahaia:

- Epaimahaia udalak eta jai batzordeak aukeratuko du.
- Epaimahaiaren erabakia ekainaren 20an jakinaraziko da eta ezingo da apelaziorik aurkeztu.
- Lanen kalitatea behar bestekoa ez bada, epaimahaiak saririk ez ematea erabaki dezake.

### Sariak:

- **1. go saria:** 16 urtetik beherakoentzat izango da aurten. Jaietako programaren portada + 150€
- **2. saria:** 16 urtetik gorakoentzat. Jaietako programaren kontraportada + 150€

**Sari banaketa:**

- Jaietako egitaraua kaleratzen denean egingo da sari banaketa, jaiak hasi baino bi aste aurretik gutxi gorabehera (aurrerago zehaztuko da eguna).

**Lanen jabetza:**

- Udalak eskuratuko du saritutako kartelaren jabetza eta eskubidea izango du hau argitaratzeko, zabaltzeko, etab. Epaimahaiaren ebazpena ezagutu arte lanak Udalarenak izango dira eta honek izango ditu lanei dagozkien jabetza intelektualaren eskubide ekonomikoak. Gainera, Udalak nahi duen erabilera emango die artelanei, hau da, artelanak erreproduzitu, banatu, hedabide publikoetan zabaldu edo erakusketa batean erakutsi ahalko ditu, egungo edozein medio, euskarri edo formaturen bidez, edo etorkizunean garatuko direnen bidez. Gainera, jaietako egitarauan bertan erakutsiko dira lanetako batzuk (gehienez ere nagusi mailako lau eta gazteen mailako beste lau).

- Irabazlea ezagutarazi eta hilabete batez, epaimahaiaren iritzia adierazten duen biharamunetik kontatzen hasita, saritu gabeko lanak egileen esku geratuko dira. Epe horretan, egilea edo egileak baimendutako norbait aurkeztuko da udaletxean lanaren bila. Aipatutako epea bete eta lanen bila inor etorri ez bada, egileek lanen gain dituzten edozein eskubideei uko egiten dietela ulertuko da eta Markina-Xemeingo Udala izango da jaso gabeko lan horien jabe.

- Jasotako kartelak arretaz zaindu eta gordeko ditu Udalak, baina ez du erantzunkizunik izango jaso diren itzuli direnerarte lanek jasan ditzaketan kalteez.

- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eskatzen du.

- Udalak oinarri hauetan jaso ez direnak arautzeko eskubidea du eta ezingo da Udalak hartutako erabakien aurkako erreklamaziorik aurkeztu.